

Larrepetit

Leire Bilbao



Fikzioa balitz

Komunikabide ezberdinetan agertu da azkenaldian Massimo Carlotto. Hasta nunc, mi amor bere liburu...

Hemezortzi urte zituenean, Italiako ezkerreko talde bateko militante aktiboa zen Massimo. 1976a zen...

Hamabigarren epaiketaren ondoren jo zuten erregabe. Hala ere, berrogeita zortzi egun gehiago eman behar izan zituen kartzelan...

Ordutik idaztea du ofizio. Nobela beltza; poliziaokoa. Hamazazpi liburutik gora ditu, eta gehienetan Italiako usteltzeria da argumentu nagusia...

Eta gaur, Liburuaren Nazioarteko Eguna den honetan, gure ingurura begira jarri, berriak irakurri eta agian baten batek pentsatuko du, idazlea motz gelditzeen dela askotan...

Hemeroteka

Diario de Noticias de Gipuzkoa Reala, Athletic eta bertze sexu kontuak

Emakumea eta gizona lagunak izan al daitezke? Betiko galdera heteroa. Koadriko neska bat tipo batekin deseroso sentitzen hasi da...

A. Mutiari gauzak garbi utzi. Ez da erraza, mutiak ez diolako argi erran berekin nahi duenik. Gainera orain duten laguntasuna pikutara joan liteke.

B. Neska bere portaera aldatu, tipoarekin hotzagoa izan. Baina zergatik aldatu behar du bere izateko manera, ez bada deus txarrik egiten ari?

Adiskidetasunaz ari naizela, Athletic eta Realari buruzko erreportajea ikusi nuen herenegun ETB2n (...). «Nahikoa dugu!» pentsatu nuen...

Nik Realeko ortuko taldeari zor diot ezkerreko begiaren gainean dudaren orbalina. Posterrari begira eta begira, artean orain baino tikiagiago mintzela, lepoa ezin gehiago luzatuz, oin puntetan jarria, sekulakoa hartu nuen labardora...

ZUZEN DARI

BERRIA: irakurlearen eskutitik plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere... Espazioak bane... Baina luze-gero...

Moral bikoitza Arrantzaie euskaldun batzuk «itsas lapurrek» bahitu omen dituztela eta azkar asko muntatu dituzte krisi kabinetek...

Kandido Saseta: 1937-2008

Aste honetanxe ospatuko da, apirilaren 26an, Hondarribian (bere jaioletern) berriki aurkitutako gorputzaren ehorzketak.

Francoren tropek 1936ko urriaren 7an Nafarroa, Gipuzkoa eta Araba okupatu ondoren Bizkaia ere mehatzatzen zutelarik, Jose Antonio Agarre Lehen-dakariak egin zuen zina Gernikako zuhaizean...

Ezin larriagoa zen egoera, mementu historikoa.

Eta egoera honetan balio aparta dute ekitaldi sinbolikoak.

Lau gudari konpainia bildu zituzten, eta Lehendakari berrak errebista pasatzeko erabaki zuen. Ekitaldi kide nor hartuko? Zalantzarik ez. Kandido Saseta, Eusko Gudaresteko Komandante berria.

Bere buruaz ahaztuta, arrisku handienak hartuz egin zuen borroka, hiru aldiz zaurituta gertatuz.

Diziplina hutsez (Sasetak gudariak Euskal Herri-tik atara nahi ez zituelako) Mendebalearrantz abiatu zen.

Eta Gernikako gertakarietatik 5 hilabete ozta paseak zirelarik, 1937ko otsailaren 23an Arleceesen hil zen, Asturiasen.

71 urte luze joan dira geroztik. Baina miraruz, ia-ia, eta lekuko batuzeren testigantza miresgarriak esker, Sasetaren gorputzina aurkitu dira.

Heldu den 26an, horretara, Sasetaren gorazarra burutuko da Gernikan goizean eta Hondarribian arratsaldean. Udaletxean aurrenik eta kanposantuko ehorzketaz gero.

Agur eta ohore, Komandante!

• Jose Luis Alvarez Enparantza, Tallerragile, Donostia

Gaitzespena versus hipokrisia

Azken urteotan, Euskal Herrian bizi dugun gatazkari konponbidea emateko helburua zuen elkar-rikizketa eta negoziazio prozesu itzaropentsu bat ezagutzetik, berriro ere konfrontazioan oinarritzen den egoera batetara pasatu gara.

Isaias Carrascoren heriotza eragin zuen ETA-ren atentatuaz geroztik, Arrasateko herria, egunero ari dira izaten hainbat komunikabidetako helburu, gaitzespen exijentziak, zentsura mozioak, eta inolako oinarririk ez duten irainak botaz.

Indarkeria eta inposizioa, aspaldikoak dira, denon zortzarrenakoa, Euskal Herrian.

Estatu espainolek bortziki jipoitu izan gaitu, legezko nahiz legez kanpoko tresnez. Konstituzio inposatu bat, euskaldunok onartu izan ez ditugun politzia desberdindik, estatu terrorismoa, Alderdien Legea, ilegalizazioak, tortura, kartzela politika ankerra, bakartzea, dispertsioa, arrazoizko ideologikoengatik kartzelatzekak, eta abar.

Baina estatu espainoleko ordezkariak ez zaie komeni hau guzti hau gogoan hartzea eta arazoaren errua ETAk garatzen duen borroka armatuari egotzi nahi diote, eta erantzule bakartzat jo.

Eta beraien esanetara makurtzen ez den oro errudun deklaratu eta kriminalizatu, irizki askatasunerako eskubidea etengabe urratuz.

Loiolako mahaitik altxatu zirenean, beraien Es-

paña. Una beste gauza guztien gainetik ipitu zigiten, berriz ere. Euskal hirugarrenaren eskubideak ahaztuta.

Eta, euren buruak demokrata gisa auto-proklamatu eta gero, demokrazia, duintasuna eta antzekoak manipulatu, beraien uztarrira eramanez nahi gaituzte.

Gaitzespena besteei eskatzea, joko demokratikoaren barruan sartzen da.

Gaitzespena bakarrak eta alde batekoak bakarrik gaitzespena, konponbideari bidea itxia da.

Gaitzespena aurrebaldintza bezala exijitzea, ez da ez zilegi, ez demokratikoa; bakoitzak eskubidea baitu, egoera bakoitzaren azterketa propioa egiteko.

Ekintza armatu bat ez gaitzespenak ez du esan nahi indarkortaren erabilpena ontzat ematea; bai, ikusten denez, gaitzespenak egiteak ere, ez da kar gaitzesleek indarkortiaz ez baliatzea.

Eta ez da batera etikoa hainbat eskubide etengabe urratzen jardun eta gero oinarri etikoak aldarrikatzea; gauza bat esan eta beste bat egin, hipokrisia da; gezurra. Izan ere, oinarriko eskubide bakoitza baita beste guztiak bezain garrantzitsu.

Arrasate, bitartean, hauteskunde autonomiko-eterako kanpaina erabiliaz izaten ari da; EAJk eta PSE-EEK oso ondo ikasi dute Espainiako orokortzetan, bi alderdiren arteko polarizazioak zer nolako emaitzak ekar ditzaketen.

Eta horretxeren bila ari dira, jokaldi bera errepikatuta nahi dute.

• Xabier Zubizarreta, Amigos

Haizea, Gorka eta besteekin elkartzatuna

Lau Haizetara Euskaldunon Elkarteak pasa den ostiralean gure eskualdean izandako gertaeren inguruko salaketa plazaratu nahi du. Egun horretan burututako sarekadaren baitan atxilotutako gazteetako bi, Haizea Iriarte lankidea eta Gorka Etxeberria, bertso eskolako kide dira. Ezin ahaztu, ordea, beste zortzi gazteak, gure elkarte bezalaxe, hauek ere, euskararen sustatzaile eta bultzatzaileak baitira. Gutun labor honek argia jutsu duenerako, bukatua izango da gazte hauek guztiek jasan behar izandako bost egun luzeko infernua. Inoiz ez da berandu, ordea, gure herrian tamalez halako egoerak, sartzei errepikatzen direlako, erregubatasun-presuntzioaren aldeko aldarria egiteko. Hau da hain zuzen, komunikabide, alderdi politiko eta epaileei eskatu nahi dieguna, hamar gazte hauek erregubatasun-presuntzioa errespetatu eta aske uzteko.

Ahalik eta azkarren gurekin lanean eta herriko kaleak euskarz betetzen izango zaituztegun espe-roan, jaso ezazue zuek hamarrak eta zuen senideek ere. Lau Haizetaren elkartzatunetik beronea.

• Jose Luis Maribalar Labandibar, Lau Haizetara Euskaldunon Elkartearen idazkari (Eretera)

ZUZENKETA: Irakurlearen eskutitik plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere... Espazioak bane... Baina luze-gero...

nago. Ez edozein kontsulta baina. Akordio on batekin abiatuko dena, denon mesederako izango dena, baindik. Sindikatuek (dangileen ordezkariak) eta patronalak, (bada hori, patroiek) elkarren arerio izanik ere akordioak egiten dituzte, ezta? Politikariak horretarako daude, bada, saia daitezela akordio on bate egiten, eta gero kontsulta bat del dezetala herritarrok horren alde edo kontra bozka dezagu. Baina mugi daitezela!

• Ugarteiko

